

# Euskal Nazionalismoak herri nortasunaren eraikuntzan folkloreak emandako zeregina (1931-1939)

JESUS P. CHUECA INTXUSTA

## SARRERA

**G**aur egunendaino egin den historia ia ia kasu gehienetan ildo politikoetan kokatuta dugu, bertze zenbait esparru, hala nola, oinarri gizaekonomikoak, adierazpen ideologiko eta kulturalak baztertuz. Horrela gertatzen da ere Nazionalismoaren inguruan burututako ikerlanei so egiten ba diegu zeren korronte honi egindako saioetan ekintza politikoen lehentasuna isladatzen bait da erabat. Hala eta guztiz ere Nazionalismoaren jatorrietatik, praxis eta garapen politikoari oso lotuta agertzen zaigu iharduera kultural eta ideologiko bat zeinaren arabera Nazionalismoak munduaren ikusmen orokor bat emateaz gain tokian tokiko arazo eta eztabaida ideologikoei aurre egiten saiatzen da bere ereduak eta ideiak bultzatzeko.

Hau dela eta, giza fenomeno guztietaz jabetu gaitzen bere textuinguruan eta bere orokortasunean hartzea beharrezkotzat jotzen ba dugu, Nazionalismoa bezalako adibidetan arlo kulturalari arreta berezi bat ematea ezinbestekoa dugu. Ildo honetatik eta Euskalherriari dagokionez, zenbait ikerlan eta saio izan arren, historia entsegu gehienetan kultur arloko hutsunea nabaritzen da eta oraingoz egiteke dago ikerketa orokor bat nun argituko den kulturak, folklorea barne delarik, euskal nortasunaren finkatze prozesuan izan duen errola eta eragina. Horregatik bide hau jarraituz, urrats txiki bat eman nahian, folklorea dugu aztergai, bigarren Errepublikaren urteetako abagadunean hain zuzen ere.

## EUSKAL NAZIONALISMOA ETA FOLKLOREA 1931 - 1936 BITARTEAN

1931.ko Apirilaren 14eko erregimen berriarekin batera Primo de Riveraren Diktadura zapalduta izan ziren erakunde eta alderdi orok izugarritzko garapena ezagutu zuten. Euskal nazionalismoak, bere aldetik, erregimenaren aldaketa gauzatu baino hilabete batzu lehenago, Bergaran ospatutako biltzar baten bidez 1917tik bere barnean zeukan zatiketari, PNV eta Comunion Nacionalistaren artekoari alegia, bukaera eman zion. Nahiz eta segidan bertze haustura txiki bat ezagutu, ANV alderdiarena hain zuzen ere, Euskadi osoan barrena egituratze eginbeharrari su eta gar ekin zion erakunde jeltzaleak. Lehia hau arrakastatsua suertatu zitzaion zeren Gipuzkoan eta Bizkaian lehenbiziko indar politikoa bilakatu zen bitartean bai Araban eta bai Nafarroan urte horietan zehar aurrez sekulan eduki ez zuen ezarrera erdietsi bait zuen. Nafarroari gagozkiolarik, mende honetako lehenbiziko hamarkadetako laupabost



Jesús Chueca Intxusta.

gune abertzaleak biderkatu ziren eta jadanik 1933. Urtean 24 batzoki agertzen zaizkigu<sup>1</sup>. Jelkideen egoitzak irekitzeaz gain bertze erakunde mota batzu hasi ziren funtzionatzen, hala nola Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztetxu Batza, Napar Ikasle Batza eta abar. Geroxeago antzemango dugun bezala talde guzti hauek folklo-rearekin zerikusia izan ba zuten ere, axola haundiena izan zutenak gazte eta Emakumezkoenak izan ziren. Izan ere, Emakume Abertzale Batzaren partaideak gaztetxo eta poxpolinetaz arduratzen ziren euskal kantak eta dantzak ikas zitzen. Horrela euskal entitateak gauzatzen ziren heinean «arrazaren dantzak» ikasiz dantzari taldeak ugaritzen zihozen.

Adibide argiena Bizkaian dugu nun «Juventud Vasca» delakoari esker laister antolatu zen «Bizkaiko Ezpatadantzari Batza», 247 talde bilduta zeudelarik.<sup>2</sup> Beraz ez da harritzeko folklore emanaldiak ekitaldi politiko doi doi guztietan izaita. Batzoki eta erakunde berrien inaugurazioetatik manifestazio haundienetara masa abertzalen aktibitate orotan folklorea isladatzen zen. Erraten ahal dugu garai hartako jelkideek antolatzen zituzten ekintza guztiek aldaketa, ezta txikirik ere, gabeko eredu bati jarraitzen ziotela. Batzoki berri bat, EABren ikurrinaren bedeinkazioa edo

1. ARTETA, VALENTÍN: «Aproximación al Nacionalismo Vasco en Navarra a través del Archivo del Gobierno Civil de Navarra», PRÍNCIPE DE VIANA, (I Congreso de Historia de Navarra, siglos XVIII, XIX, XX).

2. Euzkadi, 1932.eko abuztuaren 2.an.

propaganda egiteko txangoa zirela eta, egun osoko besta atontzen zen. Kanpotik jendea iristen zenerako txistulariak herriko karriketatik euren doinuak jota zituzten. Mezara joateko orduan, sarritan, desfilea prestatzen zen. Hau ahalik eta ikusgarriena izan zedin dantzariak, poxpolinak, ikurrinak eta abar kaleratzen ziren. Erljiozko eginbeharrak bukatu bezain abudo dantzariak frontoian bere dantzak erakusten zituzten. Geroxeago bazkaria egiten zen eta hau akitzen zenean hiruzpalau hizlariak mitinari ekiten zioten. Honen ondoren berriro dantzariak suertatzen zitzairen txanda eta normalki eguna erromeria baten bitartez bukatutzat ematen zuten.

Arestian aipatu dugun legez errepublikako urteetan egitarau hau nunnahi errepi-  
katzen zen. Zugarramurditik <sup>3</sup> Marzillaraino <sup>4</sup> lehenbiziko ekitalditik <sup>5</sup> azkenetari-  
koeraino <sup>6</sup> osagai hauek ikus ditzakegu. Hona hemen, adibidez, egunkari nazionalista  
zen «Euzkadi»k Agoitzen ospatu zen EABren erakundea inaugurazioaz zekarrena:  
«Agoitzko Emakume Abertzale Batzaren Inaugurazioa» «Larunbateko egunsentian  
txistulariek hiriko kaleak ibiliko dituzte. Igande goizean dianak. Hamarretan Meza,  
Iruñako Euzko Etxearen Abesbatzaz lagunduta, Ikurrinen bedeinkazioarekin. Ha-  
maika ta erdietan Euskal Dantzen erakuspena. Ordubatan Bazkaria txistulariez alai-  
turik. Lautan mitina eta gero erromeria» <sup>7</sup>.

Horrelako ekintza politikoetan ez ezik manifestaldi haundienetan ere hala nola  
Aberri Egunean, Durangon, Aralarren eta bertze lekuetan egindako bilkuretan fol-  
kloreak zati garrantzitsu bat bete izan zuen urte haietan. 1935 ean Iruñean ospatu zen  
Aberri Egunean adibidez, bezperatik hasi ziren ekintzetan, Donostiako «Eusko  
Abesbatza»k eskeini behar zuen Guridiren «Amaya» nabarmentzen zen. Baina lirika-  
tik kanpo, Aberri Egunerako zezen plazan ospatu behar zen mitinarekin batera  
dantza jaialdi erraldoi bat prestatu zuten. Hortxe Nafarroako dantzei, Lizarrako  
Larrain dantza, Leizako Ingurutxo, Baztango Mutildanza eta Imazko Porrusaldari,  
Lekeitioko Kaxarranka eta Berrizko Expatadantza gaineratu ziren. Horrela zioen «La  
Voz de Navarra» «El desfile fue magnífico y el público numerosísimo, aplaudió  
entusiásticamente a los dantzaris, los más ilustres embajadores de nuestra típica  
prosapia vasca. Por cierto que uno de los momentos más emocionantes de la tarde fue  
cuando la bandera de los ezpatadantzaris se flameó al aire, a la terminación del desfile,  
momento que provocó una ovación inenarrable y conmovedora» <sup>8</sup>.

Aipatzekoak dira ere ekintza politikoetatik at dantza taldeek burutu zituzten  
erakuspen batzuk. Hauen artean, itzelezkoenatariko bat, Bilboko Ibayondo jolasle-  
kuan 1932.ko uztailaren 31 ean Iñaki deunaren omenez «Bizkaiko Ezpatadantzari  
Batza»k antolatu zuen. Jaialdi honetan 1976 dantzarik, 247 taldetan banatuta, parte  
hartu zuten honako egitarauarekin: Ikurrinari; Zortziko; Banakakoa; Palos; Laune-  
ko eta Txakarrankua. Bertze 45 talde gehiagok 720 irulez osaturik Zinta eta Arku  
Dantzak burutu ondoren, eginkizuna Lekeitioko Kaxarranka eta Baztango Mutildan-  
tzarekin amaitu zen <sup>9</sup>.

Hauze izan zen juxtu hilabete bat lehenago, hau da 1932.ko ekainaren bukaeran,  
Bizkai Buru Batzarrak sortuerazi zuen erakundearen lehenbiziko emaitza. «Euzkadi»  
egunkarian plazaratutako agiri baten bidez batzorde horrek zioen: «Eusko Alderdi  
Jeltzaleari loturik dauden pertsona, talde eta elkartei gomendatzen die «Bizkaiko  
Ezpatadantzari Batza»ri begirune eta maitasun haundienarekin begiratzeaz gain la-  
guntza osoa eskeini diezaiotela erakunde berri hau gogor besarkatuz Ezpatadantza  
gordetzera eta zabaltzera datorrelako eta soinketa erritmiko nazional mailara erama-

3. LA VOZ DE NAVARRA, 1932.eko abuztuaren 14.an.

4. Ibidem, 1933.eko urriaren 1.an.

5. EUZKADI, 1931.eko abuztuaren 18.an, eta bereziki LA VOZ DE NAVARRA 1932.eko abuztuaren  
aleak.

6. LA VOZ DE NAVARRA, 1936.eko maiatzaren 30.an eta urte honetako ekainaren 25.an.

7. EUZKADI, 1932.eko irailaren 16.an.

8. LA VOZ DE NAVARRA, 1935.eko uztailaren 2.an.

9. EUZKADI, 1932.eko abuztuaren 2.an.

nez gorestera doalako». <sup>10</sup> Nazionalisten aldetik Ezpatadantzarekiko atxikimendu hau nundik zetorren zaila da argitzea. Jakin ba dakigu Sabino Aranak berak folklo-reari buruzko orrialde gutxi idatzi ba zituen ere artikuluxka bat eskeini ziola dantza honi «Zinten Dantza»rekin gonparatuz. Bigarren hau arbuiatzen zuen bitartean Ezpata Dantza goraiatzen zuen erranez: «La danza de cintas es más propia de mujeres o de niños que de muchachos ya hechos. En Bizkaia la bailaban las mujeres: ejemplo Lekeitio. El Ezpatadantza, por el contrario, es un baile eminentemente viril y majestuoso. El año pasado se ejecutaron uno y otro en el citado frontón, el de cintas no gustó, pero el Ezpatadantza entusiasmó tanto al público, que parecía que el edificio se venía abajo con el estruendo de los aplausos y los hurras en que a cada momento prorrumpían entusiasmados los espectadores. ¿No se animarán los pueblos a formar cuadrillas de ezpatadantzaris? Morroskos hábiles para ello los hay de sobra en nuestro país» <sup>11</sup>.

Sabino Aranak ezagutu zuen garaian Durango aldera mugatuta zegoen dantza Euskadi osora zabalduz joan zen nazionalisten eskutik. Hauen asmoa Bizkaiko Federazioa lurralde guztietara hedatzea zen Ezpatadantza Txekoslobakiaren «Sokols» taldeen antzera, soinketa nazionala erritmikoa bilakatuz. <sup>12</sup> Helmuga hau bizkaitarrei gertu iruditzen ba zitzairen ere, bertze lurralde urrun samar gelditzen zitzairen. Nafarroaren kasuan, esate baterako Bizkaiko Ezpatadantzari Batza osatu zen garaian, hamar talde inguru zeuden bakarrik, hauetatik hiru Iruñean zirelarik. Horregatik napar dantzari eta gazte abertzaleek Bartzelonatik «Euskal Ikasle Batza»k Euskadiko Ezpatadantzarien Federazioa egiteko luzatutako gomiteari erantzun zioten erranez asmo hau ongi zegoela baina interesgarriagoa izango litzatekela Nafarroa osoan zehar taldeak sortaraztea. «Ekimen hau, bederen batzoki dagoen edo ireikitze-ra doan herri guztietan ongi hartuta izango delakoan nago. Herri hauek oso kontutan hartu behar dute izugarritzko borondate eskurapena lor daitekela gure ideia abertaleentzat, batez ere gehiago interesatzen zaigunaren artean, hau da gazteriarren artean, hiri hauetan bertako gazteek osatutako talde ekinaraziz eta gu euskal aktibitate koreografikoen aitzindariok gure buruari jakinerazi behar diogu zenbat eta zenbat jarraitzaile eta begikotasun irabazten dugun herrietan eta hirietan barrena» <sup>13</sup> Zenbait abertzalek ere, hai haien artean «Irular» idazlea zegoelarik, Ezpatadantzaren nolabaiteko nagusigoa kritikatzeko zuten. «Aurreku, Sagar Dantza eta MutilDantza» izenburuaren pean honakoa hau argitara eman zuen: «Euskal jaietan eta nazionalistetan ere dantza emanaldiak behin eta berriro errepikatzen den Ezpatadantzara murrizten dira. Gizonezko dantza honek benetako arkaismo eta edertasuna esankorrek ditu. Baina euskal folklorea dantza honekin bukatzen ote da? ¿Ez al dugu edertasun haundiko beste dantzarik? Nafarroan dantzatzen dira: Baztandar den mutildantza. Aitzinako eta dantza enigmatikoa, bakarrik gizonek dantzatzen dutena. Borobil baten inguruan, guri ailegatu ez zaigun zerbaiten inguruan, bere erritmoaren zentzu erlijiosoagatik ara bat izan zitekena. Dantza hau zaletasun haundiz Baztanen dantzatzen da. Hizkuntzak Baztanen Mutildantzak dituen dantzari sutsu hainbat hizlari izango balitu! Luzaiden Yantza Yauzi dantzatzen da. Niretako Valcarlosko dantza hau mutil dantza bat da, bere musikak doinu baztandar ederrak gogorazten ditu. Gizonek soil soilik ere dantzatzen dute borobilez, oi hu batzu errepikatuz. Mutildantzari taldeak Bilbon ere egin dituzte. Ezin ote dugu Iruñean ere talde bat osatu? Eta zer esan daiteke Sagardantzari buruz? Dantza hau ere Nafarroakoa da, baina naparren lotsarako hemen taldeak eratu beharrean Tolosan egiten dira. ¿Eta Leitzako aureskua? Lehenbiziko aldiz leitzarrak dantzatzen ikusi nituenean txunditurik gelditu nintzen orduarte ez nuelako sumatu ere egin horrelako aureskulari onik egon zitekenik. Beha-

10. Ibidem, 1932.eko ekainaren 3.an.

11. BASERRITARRA, 1897.eko abuztuaren 8.an.

12. EUZKADI, 1932.eko martxoaren 28.an.

13. AMAYUR, 1932.eko irailaren 10.an.

rezkoa de Iruñean aureskua erakustea. Aureskuaren musika jende guztiak dakien bezala gure kantutegiaren ederrenetarikoa da. Gure emakume eta gure gazteek ba dute zer eginik dantza hauek ongi ikasten. Nahitanahiezko eginbearra da hau zeren propaganda politikoa egiten den bitartean gure kantak eta dantzak ez ba dira berri-tzen eta berpizten, helburu abertzale zein estetikoaz, propaganda hura antzua izanen da erabat».<sup>14</sup>

Zentzu honetan abertzaleek tokian tokiko dantzak ikasteari ekin zioten. Lizarra-ko adibidea adierazgarria da oso. Hiri honetan, 1932ko Gabonetan Emakume Aber-tzale Batzak antolatutako festan Lizarrako espatadantzariek bere aurkezpena egin zuten. Baina beranduxeago, talde abertzale batek eraginez Larrain Dantzaren aldeko batzorde bat osatu zen. Bere partaideak, Elizaga anaien zuzendaritzapean, des-agertzeaz zegoen aintzinako dantza hau berreskuratu zuten. Besteak beste P. Irujo, F. Beruete, J. Ugarte, Elizagatarrak, eta abar 1933.ko otsailetik maiatza arte saioak egiten ihardu ondoren, Lizarrako zaindariaren egunean aurkeztu zituzten dantza eta talde berria. Honen ondorioz, Aita Olazaranez «La Voz de Navarra» egunkarian idatzita-ko artikulu batean dantza honen birlorpena eskertu eta gero Leitzako ingurutxoare-kin parekatzen zuen. «Larrain Dantza koreografia aldetik, beste batzuekin alderatuz, Ingurutxo bat da, Larraungo, Ultzama eta Basaburukoen antzerakoa. Larrain dantza-ren bi lehenbiziko zatiak erritmo eta doinuaren aldetik Ingurutxoan bezala dantza-tzen dira, nahiz eta dultzainaren melodia txistuarena baino altuagoa izan. Euskaldun jatorriari begiraturaz gero Lizarrako dantzak galdu izan duena kanpoko osagaietaz, hots, fandango, jota zaharra, eta boleteraz, orekatzen da. Napar izpiritu musikalak aldatu ditu kanpoko eragin hauek, folklore ikuspuntuatik biziki eder eta interesgarria den Lizarrako dantza honi oso kolore aldakorrak emanez».<sup>15</sup>

Hala ere, esan beharra dago, eskualde honetako folkloreak bizi zuen hazkundera ez zela jende guztiaren gogokoa. Karlistek, esate baterako, arlo honetan ezer ez egiteaz gain Nazionalismoarekin batera antolatutako zenbait inizatibetan euskal kulturaren kutsua antzematen ba zutenean berehala ospa egiten zuten. Horrela gerta-tu zen Lizarran bertan 1933.ko udan Gipuzkoako uholdeetan suertatu ziren kaltetuen alde egindako jaietan. Egun hartan festaren presidentzian «margaritas» erakundera ordezkatzeko ari ziren hiru emakume karlistek alde egin zuten dantza taldeek «separa-tisten» bandera atera zutelako.<sup>16</sup>

Lizarrako abertzaleek euskal dantzen zabaltzeari gogor eutsi zioten eta bere hirian ez ezik bertze herrietan ere, Aiegi, Bargota..., talde berriak prestatu zituzten noiz behinka jaialdi amankomunak antolatuz.<sup>17</sup>

Dantzetaz arduratzeaz gain euskal nazionalismoak arreta berezia eskaini zion euskal abestien lantzeari. Ahalegin honetan XIX.garren mendetik zetorren tradizio-arekin bat egiten zuen arren ba zen nabardura argi bat. Izan ere, zeuden abesbatzek, Donostikoa, Iruñakoa edota Bilbokoak mota guztietako musika lantzen zuten bitar-tean, abertzaleek eratutako taldeek euskal kantak landuko zituzten gehienbat. Xede honekin, 1932.ko otsailaren 28 an Sabino Aranaren omenez ospatutako mezan Do-nostiako «Eusko Abesbatza» aurkeztu zen Gabriel Olaizolaren eskutik. Talde honek euskal folklorea jorratu ez ezik lirikari ere ekin zion «Txanton Piperri» eta «Amaya» operak eskeiniz. Azken hau, bertze lekuen artean, 1935.ean Iruñean ospatu zen Aberri Egunaren festetan arrakasta haundiz aurkeztu zuten.<sup>18</sup> Honen ondorioz napar hiriburuko «Centro Vasco» delakoan bertze Eusko Abesbatza martxan jartzeko Donostiako zuzendari berarekin, lehen aipatu dugun Gabriel Olaizolarekin, saioak

14. LA VOZ DE NAVARRA, 1932.eko abuztuaren 24.an.

15. Ibidem, 1935.eko ekainaren 30.an.

16. Ibidem, 1933.eko uztailaren 7.an.

17. Ibidem, 1933.eko otsailaren 14.an eta 1936.eko maiatzaren 30.an.

18. Ibidem, 1935.eko azaroaren 6 eta 9.an.

egiten hasi ziren. 1935.ko azaroaren bederatzian Gayarre antzokian lehenbiziko emanaldia eskeini zutenean, 190 partaidez osatuta zegoen. Egun hartako eginkizunak hiru zati izan zituen: Erdikoan kanpoko egile klasikoek kantuekin eratuta ba zegoen ere hasierakoan eta bukaerakoan euskal abestiak, haien artean Joseba Olaizola, Guri-di, eta Aita Donostiaren lanak zirelarik, soil soilik abestu zituzten.<sup>19</sup> Nazionalisten egunkaria zen «La Voz de Navarra»k, zenbait egun lehenago, azpimarratzen zuen berezitasun hau erranez: «Ehun eta larogei ta hamar abeslari guztiak aho batez nahi dute erakustea Iruñeako publikoari ba duela euskal musikaren arloan egun batean nabarituriko den abesbatza bat. Hainbeste aldiz goraiatua izan den «Orfeón Pamplo-nés» delakoaren erreperitoriumen era guztietako musika sartzen den bitartean, Eusko Abesbatzarenean, aitzitik gure herriko musika bakar bakarrik bizkortuko da».<sup>20</sup>

Eusko Abesbatzaren izatearen zergatia biziki garbi azaldu zuen bere partaidea zen Eulalia Perez de Subizak Olaetxea tar Marzelino gotzaiaren omenez burututako saioan: «Guk dugun bakarra eskeini nahi dizugu. Gure dantzak eta gure abestiak. Hauetatik hoberena. Kanta denak herrikoiak eta euskaldunak gure izatearen arrazoa, gure herriaren musika eta kantak gordetzea eta bizkortzea delako. Dantza apala, armoniko eta zintzo batzuk, gure arrazarenak, Jaungoikoak guretzat nahi izan zuen arrazarenak, neskek eta mutikoez dantzatuta. ez dugu besterik, eta ezin dugu, beraz zuri bertze gauzarik ezta hobeagorik ere opa. Entzutera doa Jauna, guk ohorez gure arbasoen hizkuntzaz abestuko ditugun kantak, gure herriaren adierazgarri gorena eta ohitura txarren aurkako murrus sendoena den mintzairaz»<sup>21</sup>

Donostia eta Iruñako abesbatzak eredutzat hartuz bertze herrietan (Oiartzun, Pasaia...) antzeko taldeak martxan jarri zituzten. Guzti hauen inguruan helburu berri bat sortu zen. Euskadi osoko mailan Abesbatza bat egituratzearena alegia. Hala ere amets hau ez zen sekulan gauzatu beste askoren bezala 1936.ko gerlak hil zuelako.

Guda honek izugarritzko haustura eta zapalkuntza ekarri zuen euskal kulturaren-tzat. Gipuzkoa eta Bizkaia Errepublikaren aldeko esparruan gelditzen ziren bitartean Araban eta Nafarroan frankistak ziren jaun eta jabe. Lurralde hauetan Uztailaren hemezortzitik bertatik hasi zen erregimen frankistak 40 urtez Euskal kulturarekiko izan behar zuen zapalketa. Beste alderdi politikoen legez Eusko Alderdi Jeltzalea eta bere erakunde guztiak debekaturik gelditu ziren eta euskal kulturarekin zer ikusirik zeukan orok urte asko igaro behar izan zuen berriro argia ikus zezan. Gipuzkoak eta batez ere Bizkaiak, berriz, egoera ezberdina zeukaten. Lurralde hauek errerepublikaren aldean kokaturik zeuden eta honi esker erakunde eta alderdi abertzaleek jarraitu zuten nolabaiteko lotura eta egitura mantentzen. 1936ko urrian Eusko Jaurlaritzak eratu zenean kulturaren sailaren babesaz folklorea sustengatu nahian hasi ziren ikertzen nola lotu behar zen hau eskoletan ematen zen heziketarekin. Gerlaren garapen azkarrak berriro ideien eremuan utzi zuen jeltzaleen asmoa. Dena den, Euskalherriko lurralde guztiak frankismoaren pean gelditu zirenean, zenbait abertzaleen gogoetan euskal kulturaren zabaltze beharra inoiz baino sendoagoa izan zen. Hauen artean Jose Antonio Agirre, Eusko jaurlaritzaren lehendakaria. Honek Eusko Abesbatzaren zuzendari ohiari, hots, Gabriel Olaizolari, euskal talde kultural bat antola zezan agindu zion. Horrela kontzertatu digu Agirrek bere liburuan «De Gernika a Nueva York pasando por Berlín»: «Guk atzerrian adierazi nahi genuen nola bibratzen zuen gizateria inbaditzea mehatxatzen zuen totalitarismoaren alde sakrifikatua izan zen euskal arimak eta egunkariak, aldizkariak eta antzerki jaialdiak antolatu genituen. Santanderren nengoelarik, bere erorketa baino hiru egun lehenago, bizi izaten genituen arrenkurak gune batez ahazturik, euskal musikaririk bati dei eginez horrela hitz egin nion: Posible da gu hemendik ateratzerik ez izatea. Baina horregatik arlo artistikoa ere eramatea nahi dudana guda ez du bukatu behar. Agin-

19. Ibidem.

20. Ibidem.

21. Ibidem, 1936.eko urtarilaren 28.an.

tzen diot zerorri Frantzirat atera bedi eta egin beza gure errefuxiatuekin ahalik eta berezien abesbatza, gure kantuen bitartez, munduan zehar eramán dezan askatasunaren alde hiltzen den herri baten oroitzapena, oraindik atzerrian ez bait dakite honen alde burukatzen dela. Erortzen ba gara oroipen bat eskein diezadazue eta jarrai kantatzen». <sup>22</sup> Gabriel Olaizola, José Antonio Agirren agindua betetzearren mugaz bertzaldera joan zen. Hor zenbait abertzalekin, besteak beste Jesús Luisa, Manu dela Sota, Antonio Guezala, José María Uzelairekin, euskal kultura zabaltzen Frantzia, Belgika, Holanda eta Ingalaterran barrena ibili behar zuen erakunde baten oinarriak prestatzeari ekin zion. Hauxe izan zen «Eresoinka»ren sorrera. Lapurdiko Saran bildu ziren dantzariak eta abeslariak, gehienak Eusko Abesbatza eta Eusko Gaztediaren taldeetan aritutakoak, Pariseko Salle Pleyelen, 1937ko abenduaren 18an emandako jaialdi baten bitartez berriro euskal folklorea lau haizetara zabaltzen zuten.

Ahalegin honetan ez zegoen bakarrik Olaizolaren taldea zeren urte hartako ekainaren bukaeratik Donibane Garaziko gotorlekuan Gernikako «Elai Alai» taldearen ume dantzariak laketu ziren. Uda osoa saioetan eman eta gero Pariserat dantzatzera joan ziren errefuxiatuak laguntzeko asmoz. Arana Martijak erraten duenez: «Bi izan ziren ba 1937ko azken egunetan euskal musika, dantza eta ohituren aberastasuna Frantzian aurkeztu zutenak eta Euskalherrian sasoi hartan egoan era larria agertu zutenak». <sup>23</sup> Horrela iraun zuten 1939. urte artio. Espainiako gerla bukaerarekin batera umeak pixkanaka pixkanaka Gernikara itzuli ziren eta bere aldetik «Eresoinka» 1940.ko udan, alemaniarrek Frantzia inbaditu zutenean desegingo zen. <sup>24</sup>

Ikusten denez, azaldutako garaian Folkloreak nazionalisten ekintzetan oso funtzio garrantzitsua bete izan zuen. Ekitaldi politiko gehienetan agertu ez ezik berezko emanaldi aunitzen bidez herri baten adierazpen kulturalak isladatzeko ere erabilia izan zen. Folklorearen errolari gagozkiolarik teorizazio lan zuzenak eta zehatzak oso murriztak izan arren erraten ahal digu garai hartako abertzaleek kultur arlo hau Euskadiren problematika orokorrean kokatzen zutela. Izan ere orduko jeltkideentzat euskal folklorea, hizkuntza edota herri ohiturak bezala desagertze arrisku larrian zegoen eta hau gertatzekotan berarekin batera herriaren zati garrantzitsu bat hil egingo zen. Beraientzat «Erraondoko txistularia» zen imitatu ez zuten behar historia tristea. «Ez daukagu aztuta Kanpion jaunak sortutako irakurgaya. Txistulari batzak esker ugariak zor dizkio gure errietan txistu eta euzko abestien egoera negargarria ipuin argitsu ortan erakutsi digulako. Orain ezik len ere txistu ardura azaldu digu ondo aski irakurgai au dala eta. Kanpionek samíñez idatzi du gertaera au Biño egitan euzkotarren artian gertatu izan dira orrelako ez bearrak. Gure asaba zarren oiturak bastartu eta erdel kopia esarri deu guziari. Euzko izkuntza aztu eta atzerriko mintzoaz jabe egin; euzko abestiak oztikopetu eta iñongo oyuak aukeratu. ¡Mingarria! Batzuetan gure erruz eta bestietan berriz iñoren maltzurkeriz».

Horregatik folkloreaki eustea eta ekitea herriaren nortasuna finkatzea zen. Era berean, Emakumeen bidez eta gazte erakundeak esker alderdi erakundetara erakartzeko gazteak tresna baliogarriztat jotzen zuten orduko nazionalistek.

Bukatzeko eta hor geldi dadin datozen ikerketendako gure buruari galde diezaiokegu zer neurri arte Nazionalismoak bultzatzen zituen eredu folklorikoak egoikiak izaten ziren bere ideologia eta politika Euskalherriko lurralde guztietan zehar barreiatzeko.

22. AGIRRE JOSÉ ANTONIO: *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín*, Obras Completas, París, 1945.

23. ARANA MARTIJA JOSÉ ANTONIO: *Eresoinka*, Bilbao, 1987.

24. *Ibidem*.

